

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2010

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak EA Eren sei Erakunde Autonomoen 2010eko ekitaldiaren fiskalizazioa mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak ez ezik, kudeaketa hobetzeko hainbat gomendio ere besarkatu ditu ondoko erakunde autonomoei dagokienez:

- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea eta Euskaltegiak Arautzekoa (HABE)
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (IVAP)
- Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia (EHPI)
- Estatistikaren Euskal Erakundea (EUSTAT)
- Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Erakundea (OSALAN)
- Emakumearen Euskal Erakundea (Emakunde)

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2010eko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan jaso diren hainbat akats salbuetsita.

Honela, bada, langileen atalean azpimarratu da Eustaten urteko hainbat inkestetarako datu bilketa egiteko aldi bateko langileen kontratazioak auzitegiek, duten izaera errepikaria aintzat hartuta, kontratu mugagabe ez jarraitutzat hartu dituztela eta 2009 eta 2011 bitartean 96 langileren aldeko epaiak ebatzi dituztela; horren aurrean Epaitegiak adierazi du funtzio publikoko araudiak agintzen duela langileria-behar iraunkorrak LZn jaso behar direla, gerora dagokion enplegu publikoko deialdia deitzeko.

Kontratazioaren atalean HKEEk adierazi du Osalan eta Emakundek ez dituztela kasu batzuetan administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak bete, batik bat, arrazoi hauengatik: esleipenean nahitaezko publizitate eta lehia eza edo lehiatzaileekin gardentasun eta tratu-berdintasun printzipioak ez betetzea; kontratuaren xedea eta bolumen ekonomikoa desitxuratzea, hasierako kontratuari prestazio osagarriak gehituta

edo justifikatu gabeko aldaketak eginda; eta kontratu txiki edo prozedura negoziatuetan kontratuak zatikatzea.

Diru-laguntzei dagokienez, zenbaitetan ez zaie hartzaileei laguntzen norakoari buruzko justifikaziorik eskatu.

Erakunde autonomoen urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du egoki aurkeztu dutela 2010eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta ekitaldi itxieran finantza egoeraren isla zuzena, hainbat huts salbuetsita; horiek txostenean jaso dira eta diruzaintza geldikinean kopuru ezberdineko doiketak eragin dituzte.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu irizpen eta gomendioen atalean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Ez-betetze hauek nagusiki aurrekontuari, langileriari eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagozkie.